

## Baietz gurean! Lehen 12 ebaluazioak martxan

- Aurrekoan eman genizuen Buruntzaldeko enpresetan euskararen erabilera sustatzeko egitasmoaren berri. Ikasturteko lehen bisitak egiten hastekoak dira orain Ahize-AEK hizkuntza aholkularitza zerbitzuko teknikariak. Oraingo honetan Buruntzaldeko 12 lantoki bisitatuko dira. Helburu nagusia, gogoratu, ahalik eta enpresa gehienek aurrerapausoak ematea dela hizkuntza garapenean eta Bikain ziurtagiriren bat lortzeko bidean jartzea. Ibilbide horretan Udalek diruz lagunduko dituzte hobetzeko urratsak ematen dituzten enpresak.
- Baietz gurean! egitasmoan parte hartzea erabakitzen duten enpresek, urte bateko iraupena izango duen elkarlanerako hitzarmena sinatuko dute dagokion udalarekin. Ondoren enpresa horren egoera linguistikoaren argazkia egingo dute bisitan joango diren teknikariek.
- Neurketa egiteko HPSk Lanhitz programaren barruan definituta duen Erreferentzia Marko Estandarra (EME) erabiliko da.



## EraLan2: lidergoa ikergai

- 2008-2010 urteetan zehar landutako proiektua da Eralan 2. Oraingoan helburua lidergoa ikertzea izan da eta horretarako Hizkuntza Normalizaziorako planak onartuta dituzten lan munduko erakundeetan euskararen erabileran eragiteko lidergoa aldagaia lantzeko metodologia diseinatu eta probatu da.
- Proben emaitzen berri joaneko azaroan eman zen horretarako antolatutako jardunaldian.
- Informazio gehiago [hemen](#)



## Sareak, euskara lan munduan txertatzeko aukera berria

- Euskara enpresa munduan erabiltzea posible da, eta, zehatzago, lan munduan gaur egun hainbesteko indarra hartzen ari diren sareak eta teknologia berriak euskaraz erabiltzea ere posible da. Enpresek hautua egin eta dauden bitartekoak erabili eta berriak sustatu baino ez dute egin behar.
- Informazio gehiago [hemen](#)

## Anbotok Innovate! saria

- Erandioko Anboto enpresak irabazi du Innovate saria.
- Anbotok irtenbide teknologikoak eskaintzen ditu, Hizkuntza naturalaren bidez, harreman interaktiboa, erraza eta adimendua ahalbidetzen du kontsumitzaileen eta ordenagailuen artean. Horretarako, besteak beste, saltzaile birtualak eta posta elektronikoaren erantzun adimendua eskaintzen ditu.
- Informazio gehiago [hemen](#)



## EHUreka: mezu elektronikoak

- EHUrekak gomendioak ematen jarraitzen du. Oraingoan mezu elektronikoetan euskara hobeto eta egokiago erabiltzeko aholkuak dakartza. On egin diezazuela.
- Informazio gehiago [hemen](#)



Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urdineta eta Usurbilgo Udalak. Euskarako Batzordeak.

[www.buruntzaldea.org](http://www.buruntzaldea.org)